

ERANSKINA: "Nire lekuko izango zarete"

XABIERKO SAN FRANTZISKO

- Datu biografikoak

- Xabierko gaztelua 1506/04/07 - Sancian uhartea (Txina) 1552/12/03
Familia noble bateko 5 anai-arrebetatik gazteena zen Xabier. Anaia zaharrenak Nafarroako matxinadan borrokatzera joan ziren bitartean, Frantzisko gazteluan geratu zen bere ama eta arrebeekin. Gero, 19 urterekin Parisera joan zen ikastera eta bertan sekulako eraldaketa bizitu zuen Loiolako Inazioarekin izandako adiskidetasuna tarteko. Kristorenganako maitasuna eta besteenganako zerbitzua dira bere bizitzaren oinarriak. Lehenik Italiara eta Portugalera bidaiatu zuen, eta ekialdeko uharteetara ondoren (India, Malaka, Moluka Uharteak, Japonia). Haien etxoletan egiten zuen lo eta haien arroza jaten.

- Balioak

○ Gizon bakezalea eta bihotz handikoa. Duintasun handieneko norbait ikusten zuen pertsona bakoitzarengan.

○ Behartsuekiko eta baztertuekiko gertutasuna (gaixoak, presoak).

○ Indietako aberastasunen espolioazioaren iragarpena eta salaketa.

○ Herri eta kultura ezberdinekiko irekitasuna: bertako hizkuntzak ikasi zituen, bertako kultura ezagutu zuen, herri bakoitzaren berezko aberastasuna baloratu.

○ Erlijio ezberdinen arteko elkarrizketa sustatu zuen (hinduismoa, budismoa, islama).

- Esaldia - mezua

"Emaguzu, Jauna, bihotz eskuzabal eta misiolari bat guztia zure Maitasunaz betetzeko".

"Ez dugu itxaropen hutsalik eragin behar". Inor ezin da gauza handietan bikaina izan, baldin eta lehenik ez bada gauza txikietan.

Datu biografikoak

✿ Beizama (Gipuzkoa) 1920/04/19 – Ekuadorko Amazonia 1987/07/21

12 urterekin Altsasuko (Nafarroa) kaputxinoen seminariora joan zen, eta 1945ean apaiz ordenatu zuten. Handik gutxira, Txinara joateko baimena eskatu zuen, misiolari gisa jarduteko. Pingliangen bizitu zen 6 urtez. Urte batzuk geroago, 1953an, Ekuadorrera joan zen, eta bertan lantzaz josita hil zuten 1987an, Inés Arango Kolonbiako erlijiosarekin batera. Lehenago, 1984ko abenduan Aguarikoko gotzain izendatu zuten. Kultura endemiko askoren bizitzeko modua aztertu zuen, biztanleen artean osasuna, hezkuntza eta bizikidetzaren hobetzen zituzten egitasmoak eta lanak sustatuz.

- Balioak

○ Misioa Jainkoarena da eta Eliza misioaren esku jartzen da.

○ Beste erlijio batzuen balio salbatzailea. "Hitzaren haziak".

○ Kulturen haragitzea.

- Esaldiak

Geu ez bagara joaten, akabatu egingo dituzte.

Uste dut ni neu huao familia batean txertatzea eta kide izatea litzatekeela egokiena.

Gorputzaren berotasuna behartsuarekin partekatzea ere ederra dela pentsatu nuen.

Misiolari bizitza ez da egokitzapena bakarrik; haien bizitza, ohitura, kultura eta interesekin bategitea da, batez ere.

ESTHER PANIAGUA Catholic.net - Caridad Álvarez y Esther Paniagua, Beatas

Datu biografikoak

✿ Izagre* (Leon) 1949/06/07 – † Argel 1994/10/23

Jatorriz, Leongoa, baina familiaren zati bat Zornotzan bizi zen.

Hiru ahizpen artean, erdikoa zen.

14 urte zituela jaioterria utzi eta Logroñora joan zen ikasketak egitera. Ondoren, berriro Leonen eta Agustindar Misiolarien elkarte barruan, erizaintzako ikasketak burutu eta trebatu zen.

1974ean Aljeriako misio lurraldera abiatu zen, neska-mutil ezgaituekin erizain gisa jarduteko.

1994ko urriaren 23an, tiroz hil zuten Aljerreko kaleetan bere elkarteko lagunarekin batera, Domund eguneko Eukaristiara zihoazela.

Haren elkarteko lagunek adierazitako balioak

“Lanean tinko, neska-mutilekin, aiton-amonekin eta minbizia arazo larriak zituzten gaixoekin baldintzarik gabe jarduten zuen”.

“Emakume borrokalaria zen, sutsua eta zinez mehatxatuta zegoen bizitza zaintzen saiatzen zen. Fede handikoa, harentzat Kristo zen eredia, eta bera sostengatzen zuen zutabea”.

“Aljerretik ez ateratzea erabaki zuten, behartsuenen bizitza bazter ez uzteko; hori dela eta, euren bizitza arrisku larrian jarri zuten”.

Bi galdera hauetan oinarritutako bereizketa egin zuten: “Zer nahi du Jainkoak gugandik? Zer behar du Aljeriako herriak?”. Aljerian geratzea erabaki zuten, libreki.

ISIDRO UZKUDUN

Datu biografikoak

✠ Pasai Antxo (Gipuzkoa) 1931/01/24 - † Mugina (Ruanda) 2000/06/10

7 anai-arrebetatik laugarrena zen Isidro. Haren ama, Maria Pouso, oso emakume ekintzailea zen. Isidrok amarengan erretratatuta ikusten zuen bere burua.

14 urte zituela sartu zen seminarioan, eta 1957ko abuztuaren 4an apaiztu.

Jacan, Guadalajaran eta Saturrarango seminarioetako hezitzaile gisa jardun ostean, 1964ko urrian Ruandara abiatu zen misiolari bezala, eta han pastoral lana eta heziketa lana egin zituen, biak batera. 2000ko ekainaren 10ean hil zuten, genozidioaren garai gatazkatsuen ondoren, buruan emandako tiro batez.

Balioak eta bete nahiak

Eskuzabala eta laguntzeko beti prest.

Inkonformismoa.

Izaeraz alaia eta irekia. Jendearekin harremanak izateko gaitasuna.

Kirolzalea eta abenturazalea

Hezitzailea. Uste osoa zuen hezkuntzak bakarrik salbatuko zituela Ruandako gazteak.

Esaldiak

“ Ez dut joan nahi, baina ezin naiz joan gabe geratu”.

“Zeure buruaz ahaztea eta besteei dedikatzea da Jesusek proposatutako erremedio ebanjeliko bakarra bizitza salbatzeko, bizitzaz gozatzeko eta fruitua emanarazteko”.

“Misiolari gisa Ruandara joateko ausarta banintz bezala begiratzen didazuenoi, esan nahi dizuet ez naizela inongo heroia. Inork ezin du lehen bezala jardun Kristorekin harremana izan ondoren”.